

BALIO PROPOSAMENA

1.1 NORTZUK GARA?



Nour Atabi, Sara Nadif, Aimar Zugazua, Oihane Martinez eta Haritz Aiastui gara, kooperatiba bat sortzea erabaki dugun ikasle talde bat, lana partekatzea eta erabakiak elkarrekin hartzea arrakasta lortzeko modurik onena dela uste dugulako.

SilenRoom-en ideia sortu zen inguruko jende askok bezala arazo bera dugulako: zarata. Etxean, klasean edo bulegoetan izan, oso zaila da kontzentratzea, beti baitaude zarata distrakzioak. Benetako behar honetan oinarrituta, jendeari baldintza hobekoak ematen ikasten eta lan egiten lagunduko zion zerbaite sortzea erabaki genuen: merkatuan oraindik existitzen ez zen irtenbide praktikoa eta moderno bat.

1.2 ZER ESKAINTZEN DIEGU GURE BEZEROEI ?

SilenRoom bi gauza lehen aldiz konbinatzen dituen panel akustiko adimendun sistema bat da: alde batetik, panel tradizionalen xurgapen normala, hau da, soinu-isolamendu pasiboa. Beste era batera esanda, funtsean, soinuaren zati bat xurgatzen duten panel tradizionalen antzekoa da. Eta bestetik, zarata ezeztatzeko teknologia moderno batzuetan erabiltzen denaren antzekoa, hau da, zarata ezeztapen aktiboa. Beste era batera esanda, goi-mailako entzungailuetan erabiltzen den teknologia bera da, baina gela oso bati aplikatuta.

Idea da hormetan edo sabaietan instalatzea eta erabiltzaileak aplikazio batetik erraz kontrola dezala: piztu, itzali edo behar den moduan doitu. Gainera, panelak pertsonalizatu daitezke gelaren estiloarekin bat etortzeko eta ekipamendu industrialak irudatzeko.




Nola funtzionatzen du SilenRoom-ek?

Panelak barne-sistema txiki bat du, kanpoko zarata entzuten duten mikrofonoekin. Zarata hori alderantzizko soinu-uhin bat sortzen duen mini-prozesadore batera bidaltzen da. Bi uhinek talka egiten dutenean, elkar ezeztatzen dute, eta barrura iristen den azken soinua askoz baxuagoa da.

Sistema osoa Bluetooth aplikazio baten bidez kontrolatzen da. Mugikorretik, hau egin daiteke:

- Panelak piztu edo itzali
- Zarata ezeztatze maila aukeratu
- Panel guztiak konektatuta dauden ikusi
- Moduak doitu (ikasketa, irakurketa, atsedena, etab.)




PRODUKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK:

BERRITASUNA



Gaur egun **ez** dago panel finkorik zarata xurgatzea eta ezeztapena modu honetan konbinatzen dituenik. Soluzio gehienak entzungailuetan edo panel pasiboetan oinarritzen dira. Guk **alternatiba bat eskaintzen dugu**, entzungailuen menpe ez dagoen irtenbide praktikoa bat eskainiz.

ERRENDIMENDUA



Zarata nabarmen murrizten du etxeetan, ikasgeletan, bulegoetan edo kontzentrazioa behar den edozein espaziotan. Gainera, ingurune lasaiagoa sortzen du ikasteko, irakurtzeko, online klaseetarako besteak beste.

PERTSONALIZAZIOA




Panelak hainbat kolore eta akaberatan daude eskuragarri, edozein gela osatzeko. Diseinuan ezin hobeto integratzen dira, "ekipo teknologiko" huts gisa agertu beharrean. Koloreak eta materialak instalazio kokapenaren arabera hauta daitezke.

DISEINUA



Minimalista, diskretua eta modernoa. Giroa hobetzea dugu helburu, nabarmena izan gabe. Produktua bisualki erakargarria, modernoa eta sotila izatea nahi dugu, gelaren estetika ez oztopatzeko.

PREZIOA – IRISGARRITASUNA



Gela bakarreko pakete estandar batek (gutxi gorabehera 10 panel) honako elementu hauek izango ditu barne: panelak, sistema elektronikoa eta oinarritzko instalazioa ditugu. Ez da produktu merkea, baina barneratzen duen teknologiarekin bat dator eta ikasteko edo lan egiteko benetan isiltasuna behar duten pertsonen, enpresei eta ikastetxeei zuzenduta dago.

ARRISKUEN MURRIZKETA



Distrakzioak saihesten, zaratak eragindako estresa murrizten eta errendimendu akademikoa edo profesionala hobetzen laguntzen du.

ERABILERA ERRAZTASUNA

Panelak behin bakarrik instalatu behar dira, eta gero dena aplikaziotik kontrolatzen da, beraz ez da ezagutza teknikorik behar. Dena aplikazio simple eta intuitibo batetik kontrolatzen da, erabiltzailearentzat instalazio konplikaturik gabe.

